

2017 urteari indarrez ekin nahi diogu

zuekin batera, euskara arlo sozioekonomikoan sustatzen jarraitzeko ideia, proposamen eta proiektu gehiagorekin. Euskaraz lan egin eta euskaraz bizi nahi dugulako.

**Urte berriari
#baieuskarari**

bai
euskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

baieuskarari.eus



/baieuskarariziurtagiria



@baieuskarari

Lan eta bizi euskaraz



enpresarean.eus



/enpresarean



@enpresarean

LANsarean
bilalan

lansarean.eus



/lansarean



@lansarean

Zarautz eta Gernikako enpresa, komertzio eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzen jarraituko dute

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak, Zarautz eta Gernika-Lumoko Udalekin batera, euskara arlo sozioekonomikoan sustatzen jarraitzeko konpromisoa berretsi du



Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak Zarautzko Udalararekin eta Gernika-Lumokoarekin bildu zen orain arte egindako lana aitortzeko eta aurrera begira lanean jarraitzeko hitzarmenak sinatzeko. Bi kasuetan, nabarmendu da Bai Euskarari komunitatea osatzen duten Euskal Herriko milaka entitatek urte hauetan egindako lana; horrekin batera, erronka zein den azpimarratu nahi izan zuen Rober Gutiérrezek, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendaria: "Helburua da alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea, lan mundutik hasi eta gizartearen gainerako espazioen euskalduntzean eragitea. Egunerokoan euskaraz normaltasun osoz aritzea posible bada, gure ongizatea handiagoa izango baita".

Zarautzen 32 ziurtagiridunen babesak

Zarautzko Udalak Bai Euskarari hitzarmena berri zuten abenduaren 2an, Udaleko Pleno Artetoan. Hitzarmena 2005ean sinatu zen lehenengo aldiz eta, orduetik, asko dira Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu eta hobekuntzak antzeman dituztenak; egun, Zarautzen 32 establezimenduk dute euskararen ziurtagiria: hiruk "Zerbitzua eta Lana Euskaraz" maila, hogeik "Zerbitzua Euskaraz" maila eta bederatzik "Euskararen Bidean" maila.

Hitzarmenaren bidez, establezimendu horiek hizkuntzaren jarraipen eta ebaluazioa jasoko dituzte; Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak kasu bakoitzaren egoera aztertu eta baliabiak eskaintzen ditu bidea errazagoa izan dadin.

Bezeroak euskaraz hartzeak eta euskarazko kalitatezko zerbitzua eskaintzeak duen garrantzia argi duten entitateak dira hitzarmenaren sinadura ekitaldian izan direnak. Hain zuzen ere, ongi dakite hizkuntzak herritarrengana gerturatzen duela eta horrek bezeroei konfiantza ematen diela. Euskararen erabil-tzen duten merkatariek irudi hobea ez ezik, sinesgarritasun handiagoa ere badute bezeroen artean.

Gernika-Lumo

Abenduaren 2an ere, iluntzeko zortzietan Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa egin zen Gernika-Lumon. Bertako denda, enpresa, elkarte eta erakundeek Bai Euskarari Ziurtagiria jaso zuten Astran, Ziurtagiriaren Elkarteak eta Gernika-Lumoko Udalak sustatutako elkarlanaren ondorioz.

Bertan izan ziren, agiriak emateko, Olatz Larrinaga, Ziurtagiriaren elkartearen izenean, eta Marisa Aldamizetxeberria, Euskara Zinegotzia. 27 ziurtagiri banatu ziren; horietako zortzi merkataria dira, 14 enpresa txiki eta ertainak eta bost elkarteak.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen esanetan, "ziurtagiridunak eredu garriak dira eta euskaraz bizi daitekeela erakusten dute".

